



## Komunikazioak eta posterrak aurkezteko epea luzatu dugu irailaren 20ra arte

Osasun Biltzarrerako komunikazioak eta posterrak aurkezteko azken eguna irailaren 20ra arte luzatzea erabaki dugu. Gogoratu biltzarra Zornotzan izango dela urriaren 25ean, "Botiketarik haratago" gaiari buruz. Mahai-inguru zein hitzaldi mamitsuen artean gaien sakontzeko oso aproposa izan daiteke zure ekarpen txoa. Animatu!

Bitartean, biltzarra prestatzeko lantaldea osatzen ari gara. Gauzak horrela, antolaketan parte hartu nahi izatekotan ondoko helbide elektronikora mezua bidaltzea besterik ez duzu: [oeegune@oeeegunea.eus](mailto:oeegune@oeeegunea.eus)

[Behin-behineko egitaraua](#)

[Komunikazioetarako jarraibideak](#)



## Aitor Montes Lasarte (familia-medikua): "Osakidetzan xenofobiarik ez!"

Maiz gertatzen zait: albisteei erreparatu eta urduri jarri. *La France revient*, diote. Nola Le Penen Frantzia, hala espainiar xenofobia eta supremazismoa; pailazo puzgarriak bezala, behin eta berriro zutitzen dira. *La merde revient*. Entzun dugunez, Osakidetzako langile-talde bat zutitu da, osasun-arretaren euskalduntze-prozesua salatzeko, ez euskalduntze berantiarra izategatik (lehen Euskara Plana erakunde sortu eta hogeita urte baino beranduago abiatu baitzen), bidegabekia eta baztertzailerik izategatik baizik. Osasungoaren gaineko herri-ituna ortzi-mugan dagoenean, hain justu, kasualitatez.

Irakurri Aitor Montes Lasarte Osakidetzako familia-medikuak [Argia.eus](#) agerkarian idatzitako artikulua osorik [hemen](#).



## Angel Bidaurrezaga Vandierdonck: "Farmako berri gehienak ez dira beharrezkoak"

Osasun-sistema publikoak 21.383 medikamentu-mota ordaintzen ditu, 15.547 osasun-zentroetan eta 5.836 ospitaleetan. 15.000 farmako errepikatuak dira; beraz, benetako botikak 2.400 inguru dira. Medikatu batek ezin ditu jakin farmako horien guztien berezitasunak eta, ondorioz, normalean askoz ere gutxiagorekin moldatzen da. Baina 2.400eko kopuru horrek eskaintzaren kaosa adierazten du.

Irakurri Angel Bidaurrezaga Vandierdonck Medikuntzan doktorea, EHUKo irakasle ohiak eta OEEko kidea [Independentea.eus](#) atarian idatzitako artikulua osorik [hemen](#).